

**Berrikuntza irekiaren eta ekintzaitza korporatiboaren aldeko  
apustua**

**EROSKI-K VENTURE PROGRAM ATERA DU,  
SEKTOREKO ERRONKEN INGURUAN SOLUZIO  
BERRITZAILEAK ERATZEKO**

- Ekintzaile-ehunarekin lan egiteko era berriei helduko die
- Programak modua ematen du soluzioak balioztatzeko EROSKIren taldearen ondoan
- *Demo Day* bat dakar, eta horrekin *startup*-ek inbertsiogileen, instituzioen eta sektoreko enpresen feedbacka jaso ahalko dute

Elorrio, 2023ko ekainaren 6a.- [EROSKI](#) berrikuntza irekiaren alde apustu egin du, negozioak dakartzan erronkei soluziorik onenak aurkitzeko. Horretarako, *EROSKI Venture Program* abiarazi du, ekintzaitza korporatiboa martxan jartzeko modu berritzailea; horrek irtenbide berritzaileak kontzeptualizatu eta balioztatuko ditu, negozio-eredu berriak sortzeko metodologia disruptiboak aplikatuz.

Sektorean gaur egun dauden eta etorkizunean izango diren erronkak ikusita programa honek azalarazi nahi ditu soluzioak bilatzeko lanean ari diren *startup*-ak, ekintzaileak eta proiektuak; soluzio horiek bizkor eskalatzeko moduko teknologia berrietan oinarritu behar dira, eta osagarriak izan behar dute EROSKIren gaitasunekin, prozesuekin eta beste aktibo fisiko eta digitalizatuekin.

"*EROSKI Venture Program sarbide eta hazkuntza gune bat da, zertarako eta ekintzaileek beren soluzioak atera, azeleratu eta eskala ditzaten, European kontsumo handiko ondasunen eta zerbitzuen txikizkako banatzaile kooperatiborik eta sektorean erreferente den talderik handienetako baten ondoan*", azaldu du EROSKIren Berrikuntza eta Garapen Digitaleko zuzendariak, David Sanchezek.

Metodologiari eta emaitzei begirako ikuspegia dela medio, programak aukera ematen du negozio-eredu berriak sortzen lan egiteko. Hala berean, ekintzaileari bere harreman sarea zabaltzen lagunduko dio, EROSKIren sarearen eta harreman maparen bitartez. Eta prozesuan lagun egingo dio, helburuen etengabeko monitorizazioa eta *roadmap* pertsonalizatu bat eginda. Horretaz gainera,

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

programak *Demo Day* bat eskaintzen du; egun horretan, ekintzaileak bere soluzioak aurkeztu ahalko ditu, bai eta inbertsiogileen, instituzioen eta sektorean erreferente diren enpresen iritziak, iradokizunak eta irudipenak jaso ere.

### **Uztailaren erdialdera arte irekita dagoen deialdia**

Programan parte hartzeko interesa duten ekintzaileek eta *startup*-ek uztailaren 17ra arte dute proposamenak [web](#) bitartez aurkezteko. Aurrez, uztailaren 4an aurkeztuko da programa, BAT Dorrean. Uztailaren 26an, hautatzen diren proiektuak ezagutaraziko dira.

*"Programa horrek modua emango dio EROSKIri ekintzailetzaren munduan erreferente izateko. Aurreneko aldi honetan nahiz eta estatu mailako ikuspegia izango duen, asmoa da ondoren (proiektuak eta ekimenak garatuz bezala) nazioartera iristea. Horrela, ingurune dinamikoago eta aurreratuagoetara iritsiko da, ekintzailetzaz denaz bezainbatean, eta soluziorik onenak erakarriko ditu",* esan du David Sanchezek.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)